


# IRAKURTZEN HASI BAINO LEHEN

Kontzientzia fonologikoa eta entzumen-memoria lantzen  
hasteko jolasak



**NAHIA ALONSO BEREZIARTUA**

IRALE R400

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	1
2. Marko teorikoa .....	3
2.1 Irakatsi egin behar al da irakurtzen? Zergatik dituzte hainbat haurrek irakurtzeko eta idazteko zailtasunak? .....	4
3. Jolasak.....	8
3.1. Lehenengo jolasa: Zenbat hitz? (Animaliak) .....	8
3.2. Bigarren jolasa: Zenbat hitz? (Emakumeak) .....	9
3.3. Hirugarren jolasa: Zopa magikoa .....	10
3.4. Laugarren jolasa: Piratak gelan.....	11
3.5. Bosgarren jolasa: Munstro lagunak.....	12
3.6. Seigarren jolasa: Hitzekin jolasean. Berdin hasten dira .....	14
3.7. Zazpigarren jolasa: Hitzekin jolasean. Hitz kateatuak .....	15
4. Bibliografia .....	16

## 1. SARRERA

Idazten eta irakurtzen ikasteko prozesua ahozko hizkuntzaz jabetzearekin batera hasten da. Hori kontuan hartuta, María Villaescusa Jiménezek, Rosario Porcel Buenok, Virginia Mansilla Rodríguezek, Leticia Aguilera Velak, Irene Ocaña Castillock, María Blanco Casillasek eta Belinda Haro Castillak *Comunicarnos Programa* sortu zuten.

Askotan, hezkuntzako profesionalok argi ikusten dugu gure ikasleen beharrak ez datozela bat irakasten zaienarekin. Beste era batera esanda, ahozko hizkuntza landu gabe egiten da hizkuntza idatzia irakasteko ahalegina.

Hamaika aditu daude esaten dutenak gure hezkuntza-sisteman ahozko hizkuntzari ez zaiola ematen behar besteko garrantzirik. Adibidez, Montserrat Vigasek (1996) hau esaten du: “Urte askoan zehar, idatzizko hizkuntza izan da irakasleen eta familien arreta eta kezka nagusia; ahozko hizkuntza, berriz, ez da hartu izan irakaskuntza egituratuaren objektutzat. Ikasleei konpetente izatea eskatzen zitzaien, besterik gabe, hitz egite hutsagatik berezkoa balute bezala”. Arrazoi hori bidelagun harturik, erraz ulertuko dugu *Comunicarnos Programaren* xedea: **ahozko hizkuntza garatzea eta irakurtzen ikasteko prozesuari begira ikasleen ahozko gaitasuna handitzea.**

Lan honetan diseinatu diren jolasek *Comunicarnos Programan* aurkezten dituzten jolasetan dute oinarria. Dena den, egiturari eutsi zaion arren, edukia gure eskolako ikasleen aurretiko ezagutzetara eta konpetentzia-mailara doituta dago: Gasteizko Samaniego Ikastetxe Publiko Integraleko Haur Hezkuntzako ikasleen ezagutzak eta euskaraz komunikatzeko konpetentzia-maila hartu dira kontuan. Gure eskolak bereizgarri asko ditu; **kultura-aniztasuna** da bereizgarri esanguratsuenetariko bat, eta horrekin hertsiki lotuta dago gure eskolako umeen **hizkuntza-aberastasuna**. Beraz, Samaniegon, bi hizkuntza ofizialez gain, beste hainbat hizkuntza entzuten dira gure ikasgeletan. Horrek eragin zuzena du gure ikasleen euskararen garapenean: euskara hizkuntzaren jabetasuna ohi baino berantiarra izaten da gure eskolako hainbat umeren kasuan.

Hori dela eta, euskararen jabeakuntza ahalbidetuko duten material didaktikoak sortzea proposatzen da proiektu honetan.

Material didaktiko hauek arbel digitalean eta ikasleek modu autonomoan erabiltzeko daude pentsatuta. Jolasaren, autonomiaren, inklusioaren eta globalizazioaren printzipioei jarraituz, 2 urteko umeen gelatik hasita 5 urteko umeen gelara arteko materialak proposatzen dira.

Taula honetan daude jasota sortutako zazpi jolasak eta jolas bakoitzean zer lantzen den:

<b>JOLASAK</b>		<b>ZER LANDU</b>	
<b>1</b>	<b>Zenbat hitz? (Animaliak)</b>	Kontzientzia Fonologikoa	Kontzientzia Lexikoa
<b>2</b>	<b>Zenbat hitz? (Emakumeak)</b>	Kontzientzia Fonologikoa	Kontzientzia Lexikoa
<b>3</b>	<b>Zopa magikoa</b>	Entzumen-memoria	
<b>4</b>	<b>Piratak gelan</b>	Entzumen-memoria	
<b>5</b>	<b>Munstro lagunak</b>	Entzumen-memoria	
<b>6</b>	<b>Hitzekin jolasean. Berdin hasten dira</b>	Kontzientzia Fonologikoa	Kontzientzia Silabikoa
<b>7</b>	<b>Hitzekin jolasean. Hitz kateatuak</b>	Kontzientzia Fonologikoa	Kontzientzia Silabikoa

## 2. MARKO TEORIKOA

Irakurtzen ikasteko, ez dago sasoi kritikorik; ahozko hizkuntza garatzeko, aldiz, bai. Granadako Unibertsitateko Garapen eta Hezkuntza Psikologia Departamentuko irakasle Gracia Jiménezek (2008) dio irakurtzea jendarteko asmakizun *berria* dela. Gure garuna ez omen dago irakurtzen ikasteko prestatuta, eta garunaren loturak berregituratu egin behar izan ditugu trebetasun berri horri aurre egiteko. Hizkuntza-egitura berberak erabili arren, guztiz desberdinak dira ahozko hizkuntza garatzeko prozesua eta irakurtzen ikastekoa: bi prozesuen arteko alde nagusia da hitz egiteko biologikoki gaudela prestatuta. Arrazoi hori dela medio, irakurtzen ikasteko prozesua ez da goizegi hasi behar, eta komenigarriagoa litzateke irakaskuntza-ahaleginak biologikoki prestatuta gauden horretan zentratzea, hau da, ahozko hizkuntza garatzean.

Ahozko hizkuntzaren garapenak oso inplikazio garrantzitsuak ditu haurraren garapen kognitiboan, ingurunea ulertzeko eta ingurunearekin behar bezala komunikatzeko eta erlazionatzeko ezinbesteko tresna baita.

Ebidentzia zientifikoak eta ikerketek adierazten dutenez, behar bezalako ahozko konpetentzia garatzea da irakurtzen ikasteko prozesuaren hasiera. Idatzizko hizkuntza ahozko hizkuntzan oinarritzen da; beraz, ahozko hizkuntzaren oinarriak beren osotasunean landu behar dira, ondoren hizkuntza idatziaren jabeakuntza zailtasunik gabe gerta dadin.

Silvia Defior adituaren arabera (1994), ahozko hizkuntza komunikazio-sistema arbitrarioa da, ikasi beharrekoa; kulturalki transmititzen da, modu naturalean, lehen mailako hizkuntza-jarduera baita. Hizkuntzaren idatzizko adierazpena, berriz, bigarren mailako hizkuntza-jarduera da, eta haren ikaskuntzak lehen mailako jardueraren alderdi batzuek —ahozko hizkuntzaz— jabetzea eskatzen du. Bigarren mailako hizkuntza-jarduera izanda, irakaskuntza sistematikoa eskatzen du (Mattingly, 1984).

Era berean, Mann-ek eta Liberman-ek (1984) adierazten dute bi faktore linguistiko lotzen zaizkiola irakurtzeko hasierako trebetasunari. Horietako bat ahozko hizkuntza prozesatzeko trebetasuna da; bestea, haurrek ahozko hizkuntzaren egitura fonologikoari edo kontzientzia fonologikoari buruz duten ezagutza-maila.

Ahozko hizkuntza ezagutzeak hiztegia bereganatzea errazten duela ziurtatzen dute eta horrek, aldi berean, kontzientzia fonologikoaren garapena sustatzen duela, eta, beraz, irakurtzeko eta idazteko trebetasunarena (Adams, 1990).

Azkenik, Hulme eta Snowling-en (2014) hitzak ekarri nahi ditugu hona: egiaztatu egin da irakurtzen ikasteko prozesua arrakastatsua izango bada funtsezkoa dela ahozko hizkuntzako trebetasunak garatuta izatea, bereziki kontzientzia fonologikoa (KF). Kontzientzia fonologikoa hitzen soinu-segmentuak aztertzeko eta manipulatzeko trebetasunari dagokio (Melby-Lervag, Lyster eta Hulme, 2012) eta, esan bezala, irakurketa arrakastatsuen iragarle ezin hobea da. Kontzientzia fonologikoa irakurketan duen garrantzia komunitate zientifikoak onartu eta adostutakoa da: Gracia Jiménez-en hitzetan, utzi egin zaio kontzientzia fonologikoaren eta irakurketaren arteko harreman hori ikertzeari, erabat egiaztatuta eta frogatuta baitago.

## 2.1. IRAKATSI EGIN BEHAR AL DA IRAKURTZEN? ZERGATIK DITUZTE HAINBAT HAURREK IRAKURTZEKO ETA IDAZTEKO ZAILTASUNAK?

Galdera horiek planteatzearen ondorioz, pentsa genezake ez dela beharrezkoa irakurtzen irakastea, irakaskuntza antolatuz eta sistematikorik gabe ere ikas daitekeela irakurtzen. Baina ez da hala: irakurtzen ikasteak eskolak, programak eta irakasleak eskatzen ditu; beharrezko ahalegin horiek guztiak eginda ere, hainbat haurrek zailtasun handiak izaten dituzte irakurtzen eta idazten ikasteko (Alegria, Carrillo eta Sánchez, 2005).

Gure hizkuntzarena bezalako idazkera alfabetiko bat irakurtzen ikastea grafema edo letra bakoitzari fonema bat (soinua) esleitzean datza, hau da, fonema grafema bihurtzean, eta alderantziz. Horri **printzipio alfabetiko** esaten zaio.

Grafema-fonema bihurtzeko arauak eta horien automatizazioa ikastea da ikasleek duten zailtasun handienetako bat irakurtzen ikasten hasten direnean. Hain konplexua den ikaskuntza horren arrakasta fonema-grafema elkarketaren sendotze egokiaren araberakoa izango da, baina ez da ahaztu behar hori prozesu askoz ere zabalago eta konplexuago baten azken fasea dela —printzipio alfabetikoa—. Lehenik eta behin, hurrek ahozko hizkuntzaren kontzientzia izan behar dute, entzuten dituzten esaldiak elementu independentez —hitzez— osatuta daudela ikasi behar dute; gero, ahozko hitza soinu independentetan banatuta dagoela barneratu behar dute. Beraz, esan daiteke gaitasun metalinguistikoa garatzea funtsezko faktorea dela irakurketaren ikaskuntza formalarekin hasi aurretik ikaskuntza hori errazteko. Hori guztia lantzen da *Comunicarnos Programan*, eta, ildo horri jarraituz prestatu ditugu guk zenbait material lan honetan, askoz neurri txikiagoan bada ere.

**Kontzientzia fonologikoa** ahozko hizkuntzaren segmentu fonologikoak kontzienteki aztertzeko eta manipulatzeko gaitasuna da. Haurrak nolabaiteko kontzientzia fonologikoa izan behar du irakurtzen hasi aurretik; izan ere, irakurketaren arrakasta iragartzeko faktore garrantzitsua da (Bradley eta Bryant, 1983).

Bravok (2006) honela definitzen du kontzientzia fonologikoa: "Ahozko hizkuntzaren osagai fonetikoaren kontzientzia hartzea eta hurrek kontzienteki ahozko hizkuntzaren gainean egin ditzaketen hainbat prozesu menderatzea da".

Villalónek (2008) dio kontzientzia fonologikoa bizitzako lehen urteetan garatzen den hizkuntzari buruzko gaitasun metalinguistikoa edo hausnarketarako gaitasuna dela. Ahozko komunikazioaren unitaterik handi eta zehatzenetatik hasita (hitzak eta silabak) eta fonemei dagozkien unitaterik txiki eta abstraktuenen kontzientziarekin jarraituz.

“Kontzientzia fonologikoa ahozko hizkuntzaren unitate fonologikoak ezagutzearen eta manipulatzearen arduraduna da, eta horrek ezinbesteko trebetasun bihurtzen du irakurketa-idazketaren prozesurako” (Jiménez eta Ortiz, 2007).

Hainbat ikerketak eta azterketak haxe gomendatzen dute: programatutako eta sekuentziatutako jarduerak sistematikoki sartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasgeletan, hau da, haurrengan fonologia-unitateen gaineko kontzientzia garatzera bideratuta dauden jarduerak, bai eta unitate horiekin azterketa- (segmentazioa) eta sintesi-lanetan (unitate nagusien prestakuntza) lan egiteko gaitasuna sustatzera bideratuta daudenak ere.

Kontzientzia fonologikoarekin batera, beste hizkuntza-trebetasun bat landu beharko litzateke ezinbestean: **entzumen-memoria**. Entzumen-memoriaren bidez, ordena jakin batean entzundakoak gogoratzen ditugu. Egile batzuek diotenez, haur batek informazioa modu koherentean atxikitzen ez duenean, eskola-errendimendua jaitsi egiten da; horrek ikasteko arazoak eragin diezazkioke. Juan Yaringañoren arabera (2011), esan dezakegu irakurriaren ulermeneko gaitasunean oso paper garrantzitsua duela entzumen-memoriak.

Memoriak oinarrizko prozesu psikologikoak martxan jartzen dituen bezala, hizkuntzaren soinuek eremu espezifikokoak inplikatzeko dituzte, gainerako soinuek ez bezala. Entzumen-diskriminazioaz ari gara. Bereizketa hori kontuan hartuta, espezialistak zer landu nahi duen, estimulu-mota bat edo beste bat aukeratuko du. Hitzik gabeko estimuluek arretarako eta entzute aktiborako balio dute, baita entzumen-prozesamendu orokorrerako ere. Hitzekoek, ostera, hizkuntzaren berariazko prozesamendua dakarte berekin; ezaugarri akustiko bakarreko estimuluek mintzamenaren seinaleak prozesatzea dakarte.



Ahozko hizkuntzan oinarritutako komunikazioan funtsezkoak diren unitate fonetiko eta fonologikoak identifikatzeak soinu/fonema batzuk beste soinu/fonema batzuetatik bereizteko gaitasuna ematen du. Ezaugarri hori oinarritzko trebetasuntzat hartzen da ahozko eta idatzizko komunikazioa bereganatzeko orduan.

Gu marko teoriko honetan jorratutako kontzeptu eta ideietan oinarritu gara proiektu hau taxutzeko, beti ere gure ikasleen euskara hizkuntzaren kompetentzia-mailara egokituta eta gure eskolako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuta.

### 3. JOLASAK

#### 3.1. LEHENENGO JOLASA: ZENBAT HITZ? (ANIMALIAK)

ZER LANDU: kontzientzia lexikoa.

HELBURUA: perpausak hitzetan banatzea eta hitz horiek zenbatzea.

KONTSIGNA: entzun eta zenbatu.

#### TRANSKRIPZIOA

IRUDIAK	ZER ENTZUN	HITZ-KOPURUA
1	Fokaren txupetea.	3
2	Katutxo betaurrekoduna.	2
3	Zizare irakurlea.	2
4	Egurra mozten duen inurria.	4
5	Behi botaduna.	2
6	Magia egiten dakien muskerra.	4
7	Kastoreak aizkora du.	3
8	Pinguinoa dotore dago.	3
9	Erlearen koroa ikusgarria da.	4
10	Errinozeroaren urtebetetze-jaia da.	4
11	Marinelen antzera jantzitako dortoka.	4
12	Barraskilo postariak gutunak galdu ditu.	5
13	Lepoko loredua daraman txakur surflaria.	5
14	Marrazoa izan nahi duen tigrea.	5
15	Bi tukan berritsu.	3
16	Erlez mozorrotutako hartz jatuna.	4

### 3.2. BIGARREN JOLASA: ZENBAT HITZ? (EMAKUMEAK)

ZER LANDU: kontzientzia lexikoa.

HELBURUA: perpausak hitzetan banatzea eta hitz horiek zenbatzea.

KONTSIGNA: entzun eta zenbatu.

#### TRANSKRIPZIOA

IRUDIAK	ZER ENTZUN	HITZ-KOPURUA
1	Haizea auto gainean eseri da.	5
2	Ainhize egunero bulegora joaten da lanera.	6
3	Mirenek kablerik gabeko entzungailuak ditu.	5
4	Paulak liburuen atzetik begiratzan digu.	5
5	Ainarak sandia batekin egindako kaskoa jantzi du.	7
6	Sarak maskara jantzita egin behar du lan.	7
7	Itsasnek aurpegi guztia zikindu du tinta beltzarekin.	7
8	Julenek izugarri maite du liburuak irakurtzea.	6
9	Oihaneri txapela botatzeak barregura eragin dio.	6
10	Maddik argazki-kameran artean ezkutatu du bere burua.	8
11	Zuriñek udazkeneko hostoak ditu gustuko.	5
12	Maitek, aldiz, nahiago ditu udaberriko hosto berde argiak.	8
13	Andreari eguzkiari begira arnasa sakon hartzea gustatzen zaio.	8
14	Josune nahiko triste dago azkenaldian.	5
15	Ixoneren hankak erraldoienak baino luzeagoak dira.	6
16	Suak eta Junek udarako txapel berriak erosi dituzte.	8

### 3.3. HIRUGARREN JOLASA: ZOPA MAGIKOA

ZER LANDU: entzumen-memoria.

HELBURUA: elementuen (hitzen) entzumen-memoria sekuentziala hobetzea, ordena zuzenean.

KONTSIGNA: entzun eta gogoratu.

#### TRANSKRIPZIOA

ENTZUNALDIA	HITZEN ORDENA	
1	1	Sua
	2	Lapikoa
2	1	Labana
	2	Koilara
3	1	Ura
	2	Gatza
4	1	Olioa
	2	Berakatzta
	3	Sagarra
5	1	Tomatea
	2	Porrua
	3	Tipula
6	1	Besarkada
	2	Ilea
7	1	Azazkala
	2	Gaztaina
	3	Galtzerdia
8	1	Azenarioa
	2	Oilaskoa

ENTZUNALDIA	HITZEN ORDENA	
9	1	Luma
	2	Arrautza
	3	Piperra
10	1	Sardina
	2	Ostadarra
	3	Letxuga
11	1	Txokolatea
	2	Haserrea
12	1	Artoa
	2	Dilistak
	3	Jogurta
13	1	Perretxikoak
	2	Banana
14	1	Madaria
	2	Ilarrak
15	1	Kalabaza
	2	Irribarrea
	3	Hostoa

### 3.4. LAUGARREN JOLASA: PIRATAK GELAN

ZER LANDU: entzumen-memoria.

HELBURUA: hitzen serie bat beste batekin alderatzean falta den hitza gogoratzea.

KONTSIGNA: entzun eta identifikatu desberdintasunak.

#### TRANSKRIPZIOA

Kaixo! Zuen gela hankaz gora jarri dugu eta gauza batzuk lapurtu dizkizuegu. Lapurtutako objektuak zeintzuk diren jakin nahi baduzue, adi-adi entzun beharko duzue.

Bi entzunaldi egingo dituzue. Biak entzun eta gero, haien arteko desberdintasunak identifikatu beharko dituzue lapurtutakoa zer den jakiteko.

	<b>LEHENENGO ENTZUNALDIA</b>	<b>BIGARREN ENTZUNALDIA</b>
<b>1</b>	Puzzleak, arbela	Puzzleak, arbela, zaborrontzia
<b>2</b>	Borragomak, arkatzak	Borragomak, arkatzak, zorrozkaileak
<b>3</b>	Mantalak, pintzelak, gortinak	Mantalak, landareak, pintzelak, gortinak
<b>4</b>	Mahaiak, atea	Margoak, mahaiak, atea,
<b>5</b>	Aulkiak, animaliak	Pilota, aulkiak, animaliak
<b>6</b>	Urmargoak, legoak, pailazoa	Pailazoa, urmargoak, legoak, koadernoak
<b>7</b>	Txintxetak, berokiak	Berokiak, partxisa, txintxetak
<b>8</b>	Karpetak, puntzoiak, panpinak	Puntzoiak, panpinak Klarionak, karpetak
<b>9</b>	Artaziak, kuxinak	Artaziak, ordenagailua, kuxinak
<b>10</b>	Liburuak, itsasgarriak	Plastilina, liburuak, itsasgarriak

### 3.5. BOSGARREN JOLASA: MUNSTRO LAGUNAK

ZER LANDU: entzumen-memoria.

HELBURUA: hitz-serie bat beste batekin alderatzean gehitu den hitza gogoratzea.

KONTSIGNA: entzun eta identifikatu desberdintasunak.

#### TRANSKRIPZIOA

Kaixo, lagun!

Nire izena Pepe da eta hauek nire lagunak dira: Faustine, Agustine eta Serafine. Egia esan, despistatu samarrak gara; horregatik, zuen laguntza beharko dugu.

Animalien izenak ikasi ditugu baina batzuk ahaztu egiten zaizkigu. Lagunduko diguzue denak ongi gogoratzen?

	<b>Lehenengo entzunaldia</b>	<b>Bigarren entzunaldia</b>	
<b>1</b>	Hartza, lehoia, igela	Lehoia, hartza	Igela
<b>2</b>	Arraina, armiarma, sagua	Arraina, sagua	Armiarma
<b>3</b>	Txakurra, elefantea, tximinoa	Elefantea, tximinoa	Txakurra
<b>4</b>	Jirafa, errinozeroa, zizarea	Jirafa, errinozeroa	Zizarea
<b>5</b>	Tukana, itsas txakurra, krokodiloa, inurria	Krokodiloa, tukana, inurria	Itsas txakurra
<b>6</b>	Igela, armiarma, txakurra, zizarea	Zizarea, igela, txakurra,	Armiarma
<b>7</b>	Katua, tigre, untxia	Tigre, katua	Untxia

Faustine sukaldari bikaina da eta Agustine laguntzaile paregabea. Gure galleta gogokoenak egiteko eskatu diegu, baina osagai batzuk falta zaizkie. Lagunduko diguzue gogoratzen zein diren?

<b>8</b>	Letxuga, kalabaza, porrua	Porrua, letxuga	Kalabaza
<b>9</b>	Azalorea, gaztaina, perretxikoa	Azalorea, gaztaina	Perretxikoa
<b>10</b>	Artoa, oliba, ura	Artoa, ura	Oliba
<b>11</b>	Izozkia, zukua, piperra	Izozkia, piperra	Zukua
<b>12</b>	Brokolia, azenarioa, tomatea	Tomatea, azenarioa	Brokolia

Bihar gorputzeko atalen izenen azterketa daukagu eta oraindik ez ditugu ondo ikasi. Lagunduko diguzue errepassoa egiten?

<b>13</b>	Begia, eskua, oina	Begia, oina	Eskua
<b>14</b>	Sudurra, ahoa, ilea	Sudurra, ilea	Ahoa
<b>15</b>	Bizkarra, belarria, mingaina	Belarria, bizkarra	Mingaina

### 3.6 SEIGARREN JOLASA: HITZEKIN JOLASEAN. BERDIN HASTEN DIRA

ZER LANDU: kontzientzia silabikoa.

HELBURUA: silaba jakin batekin hasten diren hitzak identifikatzea.

KONTSIGNA: entzun eta identifikatu soinua.

#### TRANSKRIPZIOA

<b>MA-</b>		<b>SA-</b>		<b>PI-</b>	
<b>AUKERA ZUZENA</b>	<b>AUKERA DESEGOKIA</b>	<b>AUKERA ZUZENA</b>	<b>AUKERA DESEGOKIA</b>	<b>AUKERA ZUZENA</b>	<b>AUKERA DESEGOKIA</b>
Madaria	Hiena	Sagua	Pistatxoak	Pirata	Muxika
Mamua	Enara	Sagarra	Bizkotxoak	Pistola	Azazkala
Marroia	Galletak	Satorra	Pelikanoa	Pistatxoak	Mantala
Mantala	Hontza	Saria	Arrautza	Piramideak	Magoa
Marmoka	Hozkailua	Sartu	Indioilarra	Pipak	Txuleta
Magoa	Irabiagailua	Saltoa	Pipak	Pinguinoa	Brokolia
Mahaia	Igela	Sarea	Iratzargailua	Pinaburua	Zainzuriak
Mahatsa	Garbigailua	Salda	Opiltxoak	Pilula	Tipulina
Mailua	Zikoina	Saltxitxak	Sugea	Pilota	Madalenak
Marrubia	Labea	Sardexka	Txipiroia	Pila	Hostoa
Maleta	Arranoa	Sardina	Txigorgailua	Pijama	Krokodiloa
Margotu	Iratzargailua	Saguzarra	Kameleoia	Pikuak	Azkonarra
Marraza	Izozkia	Saia	Zikoina	Pianoa	Saguzarra



### 3.6. ZAZPIGARREN JOLASA: HITZEKIN JOLASEAN. HITZ KATEATUAK

ZER LANDU: kontzientzia silabikoa.

HELBURUA: hitz baten amaierako silaba identifikatzea eta silaba horrekin hasten den beste hitz bat pentsatzea.

KONTSIGNA: identifikatu azken silaba eta topatu silaba horrekin hasten den hitz bat.

#### TRANSKRIPZIOA

JIRAFa	FABRIKA	KALABAZA	ZAPATA	TAPA
PALA	LABANA	NAZKA	KAKA	KAMISETA
	TALOA	AMAMA	MADALENA	

#### 4. BIBLIOGRAFIA

ADAMS, M. J. (1990). *Beginning to read: Thinking and Learning about Print*. Cambridge, MA: MIT Press.

ALEGRÍA, J., CARILLO, M. eta SÁNCHEZ, E. (2005). "La enseñanza de la lectura", *Investigación y ciencia*. 340(1), 6-14.

BRADLEY, L. eta BRYAN, P. E. (1983). "Categorizing sounds and learning to read a causal connection", *Nature* 301: 419-421.

BRAVO VALDIVIESO, L. (2006). *Lectura inicial y Psicología Cognitiva*. Santiago de Chile: Ediciones Universidad Católica de Chile.

BRAVO, L., VILLALÓN, M. eta ORELLANA, E. (2002). "La conciencia fonológica y la lectura inicial en niños que ingresan a primer año básico", *Psyche* 11.

DEFIOR, S. (1994). "La conciencia fonológica y la adquisición de la lectoescritura", *Infancia y Aprendizaje*: 67-68, 91-113.

FERNÁNDEZ, G. (2008). *La atención logopédica en la edad infantil*. La Habana: Pueblo y Educación.

HULME, C. eta SNOWLING, M. J. (2014). "The interface between spoken and written language: developmental disorders", *Philosophical Transactions of the Royal Society: Biological Sciences* 369

JIMÉNEZ, J. eta ORTIZ, M. R. (2007). *Conciencia fonológica y aprendizaje de la lectura: Teoría, evaluación e intervención*. Madrid: Síntesis.

MANN, V. A. eta LIBERMAN, I. Y. (1984). "Phonological awareness and verbal short-term memory", *Journal of Learning Disabilities* 17: 592-599.

MATTINGLY, I. G. (1984). "Reading, linguistic awareness, and language acquisition" in *Language awareness and learning to read* . New York: Springer: 9-25.

MELBY-LERVÅG, M., LYSTER, S. A. H. eta HULME, C. (2012). "Phonological skills and their role in learning to read: a meta-analytic review", *Psychological bulletin* 138: 322.

VIGAS SALVADOR, M. (1996). "La importancia del lenguaje oral en educación infantil", *Revista Aula de Innovación educativa*.

VILLALÓN, M. (2008). *Alfabetización Inicial. Claves de acceso a la lectura y escritura desde los primeros meses de vida*. Santiago de Chile: Ediciones UC.

YARINGAÑO, J. (2011). "Relación entre la memoria auditiva inmediata y la comprensión lectora, en alumnos de quinto y sexto de primaria de Lima y Huarochirí".